



DNAREN Eskola Kirola gehigarria Osteguna, 2018ko azaroaren 22a. 481 zenbakia



Odon de Apraiz

ODON DE APRAIZ IKASTOLA



Graffiti: Esti (begiralea), Unai, Jaione, Ekain.

EMAITZEKIKO BERRIKUNTZA

Hainbat umek eskalada praktikatu ahal izateko itxaroten jarraitu arren, eskolaz kanpoko ekintza berriak gehitu ditu ikasturte honetan Odon de Apraizek



Have Fun With English: Adriana (Begiralea), Adur, Ibai, Irati, Izei, Itsaso, Olaia; Getari, Jorge, Egoi, Aimar, Naia; Aimar, Marco.

TESTUA L. DE LA TORRE
ARGAZKIAK M. PRIETO

Aurten pauso bat aurrera ematea eta eskolaz kanpoko ekintzetako programazioan hainbat aldaketa sartzea erabaki dute Odon de Apraizen. Ekintza hauek kudeatzen dituen batzordeak, pasa den ikasturteko azken hiru hileroan lan handia egin zuen alderdi batzuk hobetzeko eta biribiltzeko, eta jarduera berritzailerak eta erakargarriak eskaintzeko helburuarekin. Eta lortu dute. Ikasturte honetan zenbait ekintza berri gehitu dira, hala nola, Graffiti tailerra, Art Attack, Multixiki adierazpena eta Brain Coaching. Hala ere, Udalaren eskalada-murruetan begirale ezaren arantza dute oraindik. "Pasa den urtean 20 ikasleko bi talde izan genituen eta denok poz-pozik geunden ekintzarekin. Ekainean berriro

ere eskaini genuen, baina udal-rokodromoak abuztutik itxita daudenez gero, umeak ezin dute ekintza egin", dio Naiara Ferranek, ekintzen koordinatzailea. "Urtarrilean berriro irekiko direla eta jarduera osasuntsu honekin jarraitu ahal izango dutela pentsatzen dute familiarek, baina guk ezin dugu gehiago egin Udalari dagokion erabakia delako", argitzen du.

Odon de Apraiz Lehen Hezkuntzako 293 ikasleko heziketa zentroa da (148 neska eta 145 mutil). Eskolaz kanpoko ekintzetan 180 ikasle hartzen dute parte, 130 neska eta 50 mutil. Batzorde antolatzaileak euskararen erabilera eskola-ordutegitik kanpo sustatu nahi du eskolaz kanpoko jardueren bidez era ludiko eta atseginean, errespetua, adiskidetasuna eta laguntasuna ahaztu barik. Jar-

duerak eguerdiz eta arratsaldez gauzatzen dira. Alde batetik, Multixiki adierazpena, Scratch 3D (bi talde), Brain Coaching, Antzerki (bi talde), Yoga eta Joko txokoa eguerdiz, eta beste alde batetik, Multikirola, Multi gimnastika erritmikoa (bi talde), Art Attack, Lego robotika (bi talde), Have Fun With English (bi talde), Saskibaloia, Graffiti tailerra eta Multi patinajea arratsaldean. "Orokorrean jarduerak zikloziklo eskaintzen ditugu eta mistoak dira", baieztatzen du Naiarak. Ikasturte honetako jarduera arrakastatsuenak Multi gimnastika erritmikoa, Saskibaloia eta Antzerki izan dira, 23, 15 eta 21 parte-hartzaileekin hurrenez hurren. Ikastetxean denbora gehiago daraman ekintza Multikirola da eta batzordeak "lehen zikloko ikasleentzat kirol modalitateko ekintza garrantzi-

ODON DE APRAIZ IKASTOLA



Saltoka multi-ritmika klasean.



Irristaketa: Ekhiñe, Ainara, Izaro, Iraide, Zoe, Izaro, Alazne (begiralea), Irene.



Irristaketan jolasten.



Multi-Ritmika: Igone, Anne, Maialen, Maialen, Ainhoa, Usue (begiralea); Maia, Iraitz, Valentina, Naroa, Irati, Irune.

tsuenetariko bat da" dio. Jarduera hauetan izena eman ahal izateko GE-ko bazkidea izatea nahitaezkoa da. Gainera, kuota kantitatea ordaindu behar da begiralekontratazio gastuak estaltzeko. "Materian esperientzia duen jendea

izan dadila saiatzen gara beti, horregatik, elkarrizketak egiten ditugu curriculumak aztertu ondoren. Beste batzuetan, aldiz, enpresa espezializatuei galdetzen diegu", azaltzen du koordinatzaileak.

SAN PRUDENCIO
KIROL ELKARTEA
VITORIA-GASTEIZ
1972. IKK

GURE TALDEEN ORDUTEGIAK HORARIOS DE NUESTROS EQUIPOS

<p>2ª DIV. MASCULINA VS LEIOA SBT Sábado 18.00h Col. San Prudencio</p>	<p>EKIALDE VS SENIOR 1ª MASCULINO Sábado 18.30h Ekialde</p>	<p>SALVATIERRA VS PREFERENTE Domingo 16.30h Agurain</p>	<p>SENIOR 1ª FEMENINA VS EKHI Z Domingo 19.00h Col. San Prudencio</p>
--	---	---	---

vithas
hospital
San José

ALTA FIT
GYM CLUB

Lakua
CENTRO

tiz.tuz
CLINICA DENTAL

ausolan

Diario



Odon de Apraiz Ikastola. Gimnastika erritmikoko taldea: Vania, Josune, Igone (entrenatzailea), Irati, Maialen; Ane, Miren.